



Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak "Nire enpresaren segurtasunerako gakoak" izenburupeko jardunaldia antolatu dute

- *Jardunaldia hau "Gipuzkoa Teknologikoa"ren hamaikagarren edizioan barneratzen da.*
- *Hiru entitateek antolatzen duten jardunaldi hau, euren azpiegitura teknologikoek zein meatxuei egin behar dieten aurre eta hauek nola eragotzi jakin nahi duten enpresei zuzenduta dago.*
- *Hitzaldiak Miramongo Parke Teknolgikoan egingo dira eta 200 pertsona baino gehiago bilduko dira bertan.*

Donostia, 2014ko ekainaren 20an. Gipuzkoako Bazkondeak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, SPRIk eta Miramon Enpresa Digitalak jardunaldi dibulgatzaile bat antolatu dute **"Nire enpresaren segurtasunerako gakoak"** izenburupean. Jardunaldia hilaren 24an, asteartean, egingo da Donostiako Miramongo Parke Teknologikoko Auditorioan.

Jardunaldia "Gipuzkoa Teknologikoa"ren hamaikagarren edizioan barneratzen da eta euren azpiegitura teknologikoek zein meatxuei egin behar dieten aurre eta hauek nola eragotzi jakin nahi duten profesionaleri eta enpresei zuzenduta dago.

Gaur egun informatika segurtasun zorrotzenak aukera bat izateari utzi diote, eta ezinbestekoak bihurtu dira babestuak egon nahi duten erakundeentzat. Argi izan behar dugu gure enpresak informatika segurtasunetik datozen meatxu ugariren aurrean aurkitzen direla: gure erabiltzaileak, jakitun izan da edota izan gabe, programa gaiztoak, arrotzak... Edozein enpresantzat eskura dauden praktika onak daude, enpresak erasotzeko hain errazak izan ez daitezen aukera ematen dutenak.

Jardunaldi honen helburua erakundeen azpiegiturak eta datuek izan dezaketen erasoeri buruz informatzea eta kontzientziaztea da, eta baita hartu behar diren irtenbideei buruz hitz egitea ere. Oso ohikoa baita enpresak segurtasun irtenbideak jartzen hastea arazo bat izan ondoren eta ez aurretik.

Gipuzkoa Teknologikoa

"Gipuzkoa Teknologikoa" programa 2003an sortu zen. Gipuzkoako Bazkondeak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera urtero bi jardunaldi antolatzen ditu. Jardunaldi hauetan informazioaren eta komunikabideen teknologien erabilpenarekin erlazioa duten gai ezberdinak jorratzen dira: interneten segurtasuna, tresna hauek negozio katea hobetzeko eskaintzen dituzten aukerak, 2.0 Webak, sare sozialak, mugikortasuna, online marketinga, segurtasuna...

Hizlari aipagarriak

Aurreikuspenen arabera 200 pertsona baina gehiago bilduko dira Miramongo Parke Teknologikoa inguruko hitzaldiak entzuteko. Hitzaldiak informatika segurtasunean adituak diren pertsonen kontu egongo dira, horien artean David Barroso, Telefónica-ko segurtasunean lan egiten duen kidea.

Telefónica-ko lanean hasi aurretik, Espainia eta Portugalgo AT&T-ko segurtasunaren koordinatzailea izan zen, eta ondoren Unidad de e-crime S21sec-eko zuzendaria eta Inteligentzia arduraduna segurtasunean Telefónica enpresan. Azken lanpostu honetan, cibercrimenaren aurkako borroka egin zuen, mundu osoko konpainiei laguntza eskainiz edozein meatxuren aurrean nola jokatu jakin zezaten.

Iñaki Pariente de Prada bestalde, Datuen babeserako Euskal Agentziaren Zuzendaria da eta esparru juridiko profesionalean eskarmentu handia du: unibertsitateko irakaslea da 1995etik, eta unibertsitate arloko ikerlaria 30 argitalpen baino gehiagorekin. Hainbat masteretan ere irakaslea da. "Consejo Consultivo de la Agencia Española de Protección de Datos"-eko kide da eta baita zuzenbidearekin lotura duten hainbat ikerketa taldeen kide ere. Hamar urtetan zehar Epaile-Magistratu izan zen Donostian, eta 2009 eta 2013 bitartean Eusko Jaurlaritzan aritu zen, besteak beste...

Lorenzo Martinez, Informatikako ingeniari gorena eta ingeniari teknikoa da Deustuko Unibertsitatean. Segurtasunerako puntako irtenbideak sortu dituenaren ziurtagiriak ditu.

Gaur egun bere konpainia zuzentzen du, Securizame, sistemen segurtasunean, komunikazio sarean eta informatika auzitegi-peritatzean espezializatua.

Egitaraua

9:00 – 9:15	Hasiera
9:15 – 9:55	<i>Snowden ondorengo aroan, segurtasuna gero eta garrantzitsuagoa al da?</i> David Barroso, CTO (ElevenPaths)

9:55 – 10:35	<p align="center">Segurtasun auzien kudeaketa inguru korporatiboetan</p> <p align="center">Govardhan Ghanshyam, Responsable de Formación en Gestión de Incidentes de Ciberseguridad (S21Sec)</p>
10:35 – 11:15	<p align="center">Enpresaren seguritatea eta datuen babesa: aliatu beharrezkoak</p> <p align="center">Iñaki Pariente de Prada, Director (Agencia Vasca de Protección de Datos)</p>

KAFERAKO ATSEDENA

11:45 – 12:25	<p align="center">Ziber-segurtasuna, Ziber-erasoak, Zibernetika</p> <p align="center">Pedro Morcillo, CSO (Yoigo)</p>
12:25 – 13:05	<p align="center">Tresna motak zure enpresaren zibersegurtasunerako</p> <p align="center">Jorge Chinaea, Coordinador del área de contenidos e investigación en ciberseguridad (INTECO)</p>
13:05 – 13:45	<p align="center">Segurtasuneko ohitura egokiak inguru korporatiboetan</p> <p align="center">Lorenzo Martínez, CTO (SECURIZAME)</p>

Laguntzaileak



Antolatzaileak

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347